

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

HIRI ETA LANDA GARAPEN ARLOA

Lehendik dauden bizitegi izaerako eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantza aldatzea

Denon ezaguerarako jakinarazten da jarraian azaltzen dela udal honetako Udalbatzarrak 2020ko irailaren 28an egindako osoko bilkuran hartu duen erabakiko xedapenenen atala:

“Lehenengoa. Hasierako onarpena ematea lehendik dauden bizitegi-izaerako eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzak arautzen dituen udal-ordenantzaren 6.1 eta 12. artikuluen aldaketari, honela hitzez hitz:

“6. artikulua. Baldintza orokorrak

1. Igogailuen kabinen neurriak indarreko legerian jasotako irisgarritasun- edo erabilgarritasun-irizpideetara egokituko dira. Hala ere, egiturazko arrazoiengatik, formagatik edo arrazoi ekonomikoengatik dimentsio horiek zorrotz betetzea eragotziko balute, interesdunen beharrez zehatzak betetzen dituzten beste batzuk hartu ahal izango dira, betiere behar bezala justifikatuta eta arrazoituta badago. Kasu horietan, lizentzia onartu aurretik, nahitaezkoa eta loteslea izango da udal-zerbitzuek alderdi horiei buruzko txosten bat egitea, eta espedientea Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari helaraziko zaio hori behar bezala ezagutzeko.”

“12. artikulua. Hiri eta Landa Garapen Arloaren Informazio Batzordeari eta Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuari jakinaraztea. Igogailua jartzeak espazio publikoa okupatzea badakar, proiektua, jardun eta egin izan denarekin batera, Hiri eta Landa Garapeneko Arloko Informazio Batzordeari jakinaraziko zaio. Era berean, egindakoaren berri emango zaio Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuari, dagokion espedientea izapidetu dezan.”

Bigarrena. Testu hori jendaurrean jartzea, oro har, eta interesdunei entzutea, bereziki, hogeita hamar egun baliouduneko epean entzunaldia emanda, horretarako iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik hasita. Epe horretan edonork aurkeztu ahal izango ditu alegazioak, erreklamazioak, iradokizunak eta ekarpenak.

Nolanahi ere, eta testua ahalik eta gehien zabaltze aldera, iragarkia udaleko ZUINen argitaratuko da, Udaleko Iragarki Oholean, eta udalerriko gizarte-hedabideei jakinaraziko zaie. Gainera, bai iragarkia bai Ordenantzaren testu osoa Udalaren webgunean argitaratu egingo dira.

Azalpen-aldi hori amaitutakoan, Osoko Bilkurak edozein alegazio, erreklamazio, iradokizun edo testuari egindako ekarpen oro ebatziko du, hala badagokio, testuari behin betiko onespena emateko eta, ondoren, ALHAOn osorik argitaratzeko.

Alegaziorik, erreklamaziorik, iradokizunik edo ekarpenik aurkezten ez bada, behin-behineko une horretara arteko testua behin betikotzat joko da, Osoko Bilkurak beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Nolanahi ere, osorik argitaratuko da ALHAOn, baina ez da indarrean jarriko da harik eta argitaratu eta hamabost egun balioudun igaro arte.

Hirugarrena. Argitaratzea dagokion iragarkia ALHAOn eta aurreko paragrafoan adierazitako gainerako komunikabide sozialetan.”

Espedientea kontsultatu ahal izango da astelehenetik ostiralera, Herriko Plaza, z/g, 3. solairuko Hiri eta Landa Garapen Arloko bulegoetan, 8:00etatik 14:00etara.

Laudio, 2020ko urriaren 1a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE